

# FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektua aurrera eramateko ipuinak idatzi, inprimatu, argitaratu, banatu eta saldu beharko dira. Hori dena NADUT taldeak soilik egitea ezinezkoa denez, ezinbestekoa izango zaigu beste hainbat elkarten laguntza eta zerbitzuak izatea.

Lanean jarduteko lokal bat behar izango dugu eta honek ura, argi indarra, gasa eta Interneta barne izan beharko ditu. Gure herriko poligono industrialean UGGASA (Urola Garaiko Garapenerako Agentzia S.A.) izeneko agentziarekin kontaktatuko dugu honetarako, ekintzaile berriei laguntza bat ematen diete eta hilabetean 30 euroren truke argi indarra, gasa, Interneta eta alokairua eskura izan ahalko ditugu.

Horretaz gain hau Euskal Herrian sortutako bilduma denez, Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan jarriko gara. Beraien babes oso garrantzitsua izango da guretzat, instituzioetara



zabaltzeko eta publizitatea egiteko. Babes hain garrantzitsua aurrera pauso handi bat ere izango da, azken finean beraien gertutasun horrek gu motibatu egingo gaituelako proiektu hau gauzatzeko unean. Hala ere, hori lortzea ez da batere erraza izango baina ikusita eraldaketa baten alde borrokatzeko intzertzia dugula, gure borrokan partaide izango direla espero dugu, azken finean Euskal Herriatar askoren kontzientzia alda dezakegulako, eta herritar horietara iristeko beraiek egin diezaiguketen publizitatea asko eskertuko genuke. Horregatik hau lortzea oso garrantzitsua eta aldi berean beharrezkoa dela iruditzen zaigu.

Bestalde, liburuak argitaratu, zuzendu eta banatzeko argitaletxe baten laguntza oso garrantzitsua izango da. Guk Elkar argitaletxearekin kontaktatuko dugu, Euskal Herrian



ezagunena delako eta gure lurraldeko liburu denda gehienek honekin jarduten dutelako lanean. Elkarrekoak liburuak zuzentzeaz, argitaratzeaz eta dendetara banatzeaz arduratuko dira. Ikastetxeetan, ordea, nahiago dugu guk pertsonalki entregatzea, zuzenean ekimenaren helburua azaltzeko. Geu alde batetik bestera garraiatzeko Uxuriren furgonetaz baliatuko gara. Handia denez, mailetoan liburuak sartuko ditugu eta hirurok eseritzeko tokia ere egongo da bertan.

Bilduma ezagutzera eramatea izango da lan zailena, beraz Euskal Telebistarekin eta irratiarekin ere jarriko gara harremanetan, iragarki bat sortuta produktua zabaldu eta bezeroak erakarri ahal izateko. Iragarkia guk geuk sortuko dugu. Eitb ez da bakarra izango, gaztea, euskadi irratia, kkinzona eta inguruko beste hainbat telebista eta irratiekin harremanetan jarriko gara, gure iragarkia ahalik eta gehien zabaltzeko.



Patenteari dagokionez, oso alor garrantzitsua iruditzen zaigu, izan ere, behar bezala patentatuta baldin badago, gobernuarekin arazoak eta beste enpresekin gatazkak saihestuko ditugu, eta bide batez, gure enpresa babestuko dugu.

Azkenik, correos zerbitzua ere erabiliko genuke, instagrameko Directetik egiten dizkiguten eskariak bidaltzeko. Hauek hasieratik bidaltze kostu guztiak (egin daitezzen konbinazio guztiak kontutan hartuta) kalkulatuko dizkigute eskari bat egiten diguten bakoitzean prezioa zuzenean kalkulaturik izateko.

Elkarte hauekin denekin kontaktatzea lortzen badugu, gure lana asko erraztuko da, bilduma zabaltzea lortuko da eta gure helburua beteko da.

